

LANBIDEKO ESKARIAK

Lanbiden izena ematen duen pertsonak Lanbiden "Eskatzaile" izatera pasatzen da.

"Eskatzailea" izan daiteke:

- **ENPLEGU ESKATZAILEA = BITARTEKOTZA DUEN ALTA:** Lan bila dabilen eta enplegu bat lortu edo hobetzeko Lanbiden izena eman duen edozein pertsona da. Horrela, baimena ematen du bere curriculumak bitartekari lanak egin ditzan, hau da, enpresetara bidali ahal izan dezaten eta lana lortu ahal izan dezaten. Biztanleria aktiboa (aktiboa, lana bilatzen ari delako). Eskari horrek lan-eskaintzak eskuratzeko aukera ematen du, eta enplegu-eskatzaile gisa zenbatzen da IZEN EMATEAREN ALDIEI BURUZKO TXOSTENean. Kontratatorako laguntzen deialdietan baldintza gisa eskatzen den eskaera da hau.

- **BESTE ESKATZAILE MOTA BATZUK, LANBIDEREN ZERBITZUEI DAGOKIENEZ, ENPLEGU-ESKATZAILE EZ DIRENAK - BITARTEKARITZARIK GABEKO ALTA:**

Badira beste egoera desberdin batzuk, IZEN EMATEAREN ALDIEI BURUZKO TXOSTENean jasotzen direnak, (1), (2) edo (3) zenbakiekin identifikatzen direnak, non:

(1) **"Enplegu aurreko zerbitzuen eskatzailea" (aurrerantzean, EAZE):**

Enplegu-zerbitzu publikoetan izena ematen duten baina arrazoi desberdinen ondorioz (beti beren borondatez, eta, hala badagokio, orientazio eta laguntzako zerbitzuek hala aholkatuta) bitartekaritza aurreko enplegu-politika aktiboekin lotutako zerbitzuak (esate baterako, prestakuntza-ekintzetan parte hartzea) eskatzen dituzten pertsonen eskariak.

EAZEren kolektibo honetan sartuko lirateke lan-merkatuaren ziozko arrazoiak edo arrazoi pertsonalak direla-eta berehala bitartekaritza-zerbitzuak jasotzeko prest ez dauden pertsonak.

Orientatzaileak, elkarrizketa pertsonalean halako egoeraren bat identifikatzen badu, kasuan kasuko pertsonari eskari-mota honetan sartzeko gomendatu ahalko dio, baina, edonola ere, pertsona horren borondatea lehenetsiko da.

(2) **"Lanbidetik kanpoko zerbitzuen eskatzailea" (aurrerantzean LKZE):**

Ez du eskatu bitartekaritzarik, ezta enplegurako orientazio-zerbitzurik, enplegurako prestakuntzarik edo lan-aktibaziorako bestelako zerbitzurik ere. Halaber, ez du eskatu zerbitzuen zorroan dauden enplegu-politika aktiboetan sartzerik.

Eskatzaile gisa izena ematean, bere xedea da Lanbidek eskaintzen dituen zerbitzuak ez diren beste batzuk eskuratzea .

(3) **"Zerbitzuen eskatzailea, lan-merkatu nazionalen sartu gabe" (W ez erregularrak):**

Lan-merkatu nazionalera sartzera eragiten ez duten orientazioko, prestakuntzako, lan-informazioko eta antzeko zerbitzuak eskatzen dituzten pertsonak dira, noiz eta goian aipatutako kategorietan eskatzaile gisa izena emateko administrazio-baimenik ez duten Europar Batasunetik kanpoko atzerritarrak direnean, edo, baimenen bat iraungi zaienean, ez dutelako baimen hori berri horretarako ezarritako epean.

Eskatzaile horiek ezingo dira bitartekari-lanetan aritu.